



## **UDAKO KOBRANTZAN ATZERAP AUSURIK EZ! LAN BALDINTZAK ERRESPECTATU! ORDEZKOEK UDA KOB RATU!**

Hezkuntza Sailarekin izandako azken bileran, hurrengo ikasturtetik (2023-24) aurrera ikasturte osoko lanpostuetan aritu ez diren ordezkoez udako kobraketan aldaketak egin nahi dituztela jakinarazi ziguten.

Bakantea edo ikasturte osoko ordezkapena dutenek, kontratua abuztuaren 31 arte izaten jarraituko dute, baina gainontzeko ordezekoekin zer gertatuko den ez dakigu oraindik.

Aparteko ordainsariaren zatia eta oporrei dagokiena ordezkapen bakoitza amaitzean txertatu nahi dituzte. Era horretan 165 eguneko irizpidea desagertuko da eta aspaldi lortutako eskubidea murriztuko dute.

Sindikatuarekin negoziatu nahi dutela adierazi du Hezkuntza Sailak. Steilasen argi dugu ez dugula gure lan baldintzen okertzerik onartuko.

Neurri hau gure sektorean dagoeneko zaugarriak diren ordezko askoren egoerari eragingo dio, zalantzarik gabe. Baina ez dira kaltetuak izango diren bakarrak, beste hainbat lizentzia eta baimenetan ere aplikatu nahi dituzte murrizketak: edoskitze metatuan, 50 orduko lizentzia eta adinagatik lanaldi herenaren murrizketak ordu lektiboetan, esaterako.

Steilasen jakinarazi nahi dugu ez dugula atzerapausorik onartuko eta eraso honen aurrean batasun sindikala bilatuko dugu beharrezko mobilizazioak antolatze bidean.

Euskal Herrian, 2023ko maiatzaren 17an



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus